Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko abenduaren 23a, astelehena — 244 — Lunes, a 23 de diciembre de 2019

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

604/2019 Foru Agindua, abenduaren 11koa, «Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. Emaitzak, dohaintzak, doako zerbitzu prestazioak eta bestelako ekarpenak. Urteko laburpen informatiboa» izena duen 182 eredua onetsi, eta haren aurkezpen moduak eta epea ezartzen dituena.

Abenduaren 17ko 667/2014 Foru Aginduaren bitartez, onetsita geratu zen «Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko Zerga. Dohaintzen, ekarpenen eta ondare erabilpenen urteko aitorpen informatiboa» izena duen 182 eredua. Geroago, agindu horrek hainbat aldaketa izan zituen, zehazki, abenduaren 22ko 665/2015 Foru Aginduak, zeinaren bidez aldatzen baitira 182 eta 184 ereduen urteko aitorpen informatiboak arautzen dituzten abenduaren 17ko 667/2014 eta urtarrilaren 16ko 12/2014 Foru Aginduak, sartutakoak.

Une hauetan, badira arauen esparruan zenbait aldaketa 182 eredu berri bat onestea gomendatzen dutenak.

Batetik, urte hasieran onetsita geratu zen otsailaren 11ko 2/2019 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoan kultur mezenasgoaren aldeko zerga-pizgarriak arautzen dituena.

Bestetik, 2019. urterako neurri neurriak onesten dituen otsailaren 11ko 3/2019 Foru Arauaren 6. artikuluaren bitartez bereziki, aldaketak sartu dira apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauan, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga-pizgarriei buruzkoan.

Eredu berriak aurrekoaren xede berbera du, hau da, hurrengo arau hauek ezartzen dituzten informazio betebeharrak jasotzea:

Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga-pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauan, mezenasgoaren esparruan egindako emaitzei, dohaintzei, eta ekarpenei dagozkienak.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauan, 41/2003 Legeak araututako ondare babestuen titularrei, sindikatuei eta alderdi politikoei dagozkienak.

Eta, orain, baita kultur mezenasgoaren aldeko zerga-pizgarriei buruzko otsailaren 11ko 2/2019 Foru Arauan ere. Bertan jasotakoaren arabera, arauan aurreikusten diren zerga onurak aplikatu ahal izateko, nahitaezkoa da kultur mezenasgoa jasotzen duten pertsonek edo entitateek ekitaldian egindako ziurtapenen edukiari buruz informatzea Zerga Administrazioari.

Bestalde, ereduaren diseinu logikoetan, berrikuntza gisa aipatu daiteke 132. posizio berria gehitzen dela ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren kuotan kenkaria aplikatzeko behar den informazioa osatzearren. Lurralde espainiarrean establezimendu iraunkorrik gabe jarduten duten zergadunek aplika dezakete kenkari hori.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

Orden Foral 604/2019, de 11 de diciembre, por la que se aprueba el modelo 182 «Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, Impuesto sobre Sociedades e Impuesto sobre la Renta de no Residentes. Donativos, donaciones, prestaciones gratuitas de servicios y demás aportaciones. Resumen informativo anual» y las formas y plazo de su presentación.

El modelo 182 «Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, Impuesto sobre Sociedades e Impuesto sobre la Renta de no Residentes. Donativos, aportaciones y disposiciones. Resumen informativo anual», se aprobó por la Orden Foral 667/2014, de 17 de diciembre, y se modificó por la Orden Foral 665/2015, de 22 de diciembre, por la que se modifican las Órdenes Forales 667/2014, de 17 de diciembre, y 12/2014, de 16 de enero, reguladoras de los modelos informativos anuales 182 y 184, respectivamente.

En el momento actual concurren ciertas modificaciones en el marco normativo que aconsejan la aprobación de un nuevo modelo 182.

Por una parte, se ha aprobado la Norma Foral 2/2019, de 11 de febrero, de incentivos fiscales al mecenazgo cultural en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Por otra, se ha modificado la Norma Foral 3/2004, de 7 de abril, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo, principalmente, a través del artículo 6 de la Norma Foral 3/2019, de 11 de febrero, de aprobación de determinadas medidas tributarias para el año 2019.

El nuevo modelo responde al mismo objeto que el anterior, recoger las obligaciones de información previstas en las siguientes normativas:

En la Norma Foral 3/2004, de 7 de abril, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo, respecto de los donativos, donaciones y aportaciones efectuados en el ámbito del mecenazgo.

En la Norma Foral 3/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa, referidas a los titulares de patrimonios protegidos regulados por la Ley 41/2003, a los sindicatos y a los partidos políticos.

Y ahora, también, en la Norma Foral 2/2019, de 11 de febrero, de incentivos fiscales al mecenazgo cultural, que condiciona la aplicación de los beneficios fiscales dispuestos en la misma, a que las personas o entidades destinatarias del mecenazgo cultural informen a la Administración tributaria del contenido de las certificaciones expedidas en el ejercicio.

Por otro lado, como novedad en lo que a los diseños lógicos se refiere, se adiciona una nueva posición, la número 132, que completa la información necesaria para la aplicación de la deducción de la cuota del impuesto sobre la renta de no residentes, de aplicación a los contribuyentes que operen en terrritorio español sin establecimiento permanente.

EK\CV GAO-I-2019-07816

Aurrekoa aintzat hartuta, foru agindu honen bidez 182 eredu berria onesten da, eta indarrik gabe uzten da abenduaren 17ko 667/2014 Foru Aginduaren bidez onetsi zen eredua, gorago aipatu dena.

Foru agindu hau ematen da arau hauetan jasotako gaikuntzen babesean: otsailaren 11ko 2/2019 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoan kultur mezenasgoaren aldeko zerga-pizgarriak arautzen dituena (azken xedapenetako hirugarrenean), urtarrilaren 17ko 372014 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoa (azken xedapenetako bigarrenean), eta apirilaren 7ko 3/2004 Foru Araua, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga-pizgarriei buruzkoa (azken xedapenetako bigarrenean).

Horrenbestez, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. 182 eredua onestea.

Bat. Onetsita geratzen da 182 eredua, «Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. Emaitzak, dohaintzak, doako zerbitzu prestazioak eta bestelako ekarpenak. Urteko laburpen informatiboa» izenekoa, foru agindu honetan I. eranskin gisa jasotzen dena.

Bi orri ditu ereduak: laburpen orria eta aitortuak zerrendatzeko orria.

Bi. Onetsita geratzen dira 182 ereduaren aitorpenak bitarteko elektronikoz eta fitxategi bidez aurkezteko bete behar diren diseinu logikoak, foru agindu honetan II. eranskin gisa jasotzen direnak.

2. artikulua. 182 eredua aurkeztera behartuak, eta informazioaren edukia.

Honako hauek daude 182 eredua aurkeztera behartuta:

a) Mezenasgoaren onuradun diren entitateak, emaitzak, dohaintzak, ekarpenak, kontraprestaziorik gabeko gozamen eskubide errealak, doako zerbitzu prestazioak, edo hitzarmenen ondorioz ordaindutako kopuruak edo egindako gastuak jasotzen dituztenean, baldin eta horiek pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, sozietateen gaineko zergan edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen badute, eta entitateak ikuskatzeko eskumena Gipuzkoako Foru Aldundiari badagokio.

Aitorpen informatiboa aurkeztu beharko da dohaintzan emandakoa, lagatakoa, ekarpenean utzitakoa edo gauzatutakoa zerga pertsonal batean aitortzeko ziurtagiria eskatu denean, eta bertan datu hauek jaso beharko dira: aitortutako pertsona edo entitateen zerrenda indibidualizatua, jasotako zenbatekoa edo haren balorazioa, gauza bidez jaso bada, zertarako jasotzen den –lehentasunezko mezenasgo jardueretarako edo aparteko interes publikoa duten ekitaldiei laguntzeko programetarako– eta urtean gertatu diren errebokazioak.

b) Pertsona desgaituen ondarea babestu eta, xede horrekin, Kode Zibila, Prozedura Zibilaren Legea eta zerga araudia aldatzen dituen azaroaren 18ko 41/2003 Legeak araututako ondare babestuen titularrak, eta, ondare horien onuradunek jarduteko behar besteko gaitasunik ez badute, haien administratzaileak. Kasu honetan, informazio hau jaso beharko da ereduan, modu inidibidualizatuan: ekarpen emaileak eta egindako erabilpenen onuradunak, eta ekarpen eta erabilpen horien mota, zenbatekoa eta identifikazioa.

c) Alderdi politikoak, honako hauek direla-eta:

a') Kargu hautetsiek edo izendapen librekoek euren erakunde politikoari nahitaez egindako ekarpenak, baldin eta ho-

En base a lo anterior, mediante la presente orden foral se aprueba un nuevo modelo 182, y se deroga el modelo aprobado por la Orden Foral 667/2014, de 17 de diciembre, anteriormente citado.

La presente orden foral se dicta al amparo de las habilitaciones contenidas en la disposición final tercera de la Norma Foral 2/2019, de 11 de febrero, de incentivos fiscales al mecenazgo cultural y disposición final segunda de la Norma Foral 3/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa y de la Norma Foral 3/2004, de 7 de abril, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo.

En su virtud,

DISPONGO

Artículo 1. Aprobación del modelo 182.

Uno. Se aprueba el modelo 182 «Impuesto sobre la renta de las personas físicas, impuesto sobre sociedades e impuesto sobre la renta de no residentes. Donativos, donaciones, prestaciones gratuitas de servicios y demás aportaciones. Resumen informativo anual» y las formas y plazos de su presentación, que se adjunta como anexo I a la presente orden foral.

El modelo se compone de hoja resumen y hoja de relación de declarados.

Dos. Se aprueban los diseños lógicos a los que deberán ajustarse las declaraciones del modelo 182 presentadas por medios electrónicos a través de fichero, que se incluyen como anexo II de la presente orden foral.

Artículo 2. Obligados a presentar el modelo 182 y contenido de la información.

Deberán presentar el modelo 182:

a) Aquellas entidades beneficiarias del mecenazgo perceptoras de donativos, donaciones, aportaciones, derechos reales de usufructo sin contraprestación, prestaciones gratuitas de servicios, y cantidades satisfechas o gastos realizados en virtud de convenios que den derecho a deducción por el impuesto sobre la renta de las personas físicas, por el impuesto sobre sociedades, o por el impuesto sobre la renta de no residentes, cuya competencia inspectora corresponda a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

La declaración informativa se deberá presentar cuando se haya solicitado certificación acreditativa de lo donado, cedido, aportado o realizado a efectos de la declaración en un impuesto personal, y contendrá la relación individualizada de personas o entidades declaradas, el importe percibido o su valoración en caso de que sea en especie, referencia, en su caso, a si se percibe para actividades prioritarias de mecenazgo o programas de apoyo a acontecimientos de excepcional interés público, e información respecto a las revocaciones producidas en el año natural.

b) Las personas titulares de patrimonios protegidos regulados en la Ley 41/2003, de 18 de noviembre, de protección patrimonial de las personas con discapacidad y de modificación del Código Civil, de la Ley de Enjuiciamiento Civil y de la normativa tributaria con esta finalidad y, en caso de que los beneficiarios de los patrimonios protegidos no tengan capacidad de obrar suficiente, quienes se encarguen de su administración deberán identificar en dicho modelo, de forma individualizada, a los aportantes y a los beneficiarios de las disposiciones realizadas, especificando tipo, importe e identificación de tales aportaciones y disposiciones.

c) Los partidos políticos, en relación con:

a') Las aportaciones obligatorias que a la organización política hayan realizado los cargos políticos de elección popular y

EK\CV GAO-I-2019-07816

riek eredu informatibo honetan sartzea baimendu badute lanaren etekin garbiaren kalkuluan gastu hori kengarria izan dadin.

b') Pertsona fisikoek erakunde politikoari ordaindutako afiliazio kuotak eta egindako diru ekarpenak –aurreko a') letran jasotakoak ez bezalakoak–, baldin eta horiek aitorpen informatibo honetan sartzea baimendu badute pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kuotan bidezko kenkaria aplikatzeko.

c) letra honetan aurreikusitako obligazioaren ondorioetarako, eredu informatiboan jaso behar da bertan agertzea baimendu duten pertsona fisikoen zerrenda. Gainera, batetik, bereiziko dira kargu politikoen afiliazio kuotak eta borondatezko ekarpenak eta, bestetik, kargu horiek alderdi politikoari nahitaez egindako ekarpenak.

d) Langileen sindikatuak, afiliatutako pertsonek ordaindutako kuotengatik. Eredu informatiboan indibidualizatuta zerrendatu behar da zein afiliatuk baimendu duten ereduan sartzea sindikatuari ordaindutako kuotengattik bidezko kenkaria aplikatu dadin, eta urtean zenbateko kuota ordaindu duten.

e) Kultur mezenasgoaren onuradun diren pertsonak eta entitateak, dohaintzak eta legatuak, erabilera maileguak, edo enpresa lankidetzako hitzarmenetatik ondorioztatutako laguntzak jasotzen dituztenean, baldin eta horiek pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, sozietateen gaineko zergan edo ezegoiliarren errentaren gaineko zergan kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen badute bada, eta pertsona edo entitate horiek ikuskatzeko eskumena Gipuzkoako Foru Aldundiari badagokio. Aitorpen informatiboa aurkeztu beharko da lankidetzan parte hartzen duten pertsonek edo entitateek dohaintzan emandakoa, lagatakoa, edo maileguan edo ekarpenean utzitakoa beren zerga pertsonalean aitortzeko ziurtagiria eskatu dutenean, eta bertan datu hauek jaso beharko dira: lankidetzan parte hartzen duten pertsona eod entitateen zerrenda indiidualizatua, jasotako zenbatekoa edo haren balorazioa, gauza bidez jaso bada, eta urte naturalean gertatu diren errebokazioak.

3. artikulua. 182 eredua aurkezteko eta identitatea frogatzeko moduak.

Bat. Modu hauek erabili daitezke 182 eredua aurkezteko:

a) Bitarteko elektronikoak. Aurkezpen modu hau erabiltzera behartuta daude ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zergen Foru Administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzeko obligazioa arautzen duenak, 1. artikuluko 1. apartatuan aipatzen dituen zergapekoak.

Transmisioa egiteko moduak honako hauek dira:

a') Internet, «Zergabidea» plataforma erabiliz, ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zergen Foru Administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzeko obligazioa arautzen duenak, ezarritakoaren arabera. Plataforma horrek aurkeztu beharreko aitorpenen zirriborroak prestatu eta gordetzea ere ahalbidetuko du.

b') Editran sistema, abenduaren 5eko 1210/2002 Foru Aginduak, zenbait zerga eredu Editran sistema telematikoaren bidez aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura ezartzen dituenak, ezarritakoaren arabera.

b) Paperezko euskarria, foru agindu honen I. eranskinean jasotako diseinua bete behar duena. Euskarria honela osatuta dago:

a') Laburpen orria, bi ale dituena: Administrazioaren alea eta interesdunarena.

b') Aitortutako pertsona eta entitateen barruko orria, bi ale ere badituena: Administrazioarena eta interesdunarena.

de libre designación, siempre que éstos hayan consentido su inclusión en esta declaración informativa con el objeto de aplicar la deducción del gasto en la determinación del rendimiento neto del trabajo.

b') Las cuotas de afiliación satisfechas y las aportaciones distintas de las referidas en la letra a') anterior, realizadas a la organización política por personas físicas, siempre que éstas hayan consentido su inclusión en esta declaración informativa con el objeto de aplicar la deducción en la cuota del impuesto sobre la renta de las personas físicas.

A los efectos de la obligación prevista en esta letra c), en el modelo informativo se consignará la relación individualizada de las personas físicas que hayan consentido su inclusión en el modelo, diferenciando los importes de las cuotas de afiliación y de las aportaciones voluntarias de las aportaciones obligatorias al partido político efectuadas por los cargos políticos referidos.

d) Los sindicatos de trabajadores, en relación con las cuotas satisfechas por las personas afiliadas. En el modelo informativo se consignará la relación individualizada de las personas afiliadas que hayan consentido su inclusión con el objeto de aplicar la deducción por cuotas satisfechas a los sindicatos de trabajadores, y la cuota anual que hayan satisfecho.

e) Aquellas personas y entidades destinatarias del mecenazgo cultural perceptoras de donaciones y legados, préstamos de uso, y ayudas recibidas en virtud convenios de colaboración empresarial que den derecho a deducción por el impuesto sobre la renta de las personas físicas, por el impuesto sobre sociedades, o por el impuesto sobre la renta de no residentes, cuya competencia inspectora corresponda a la Diputación Foral de Gipuzkoa. La declaración informativa se deberá presentar cuando las personas y entidades colaboradoras hubieren solicitado certificación acreditativa de lo donado, legado, prestado o aportado a efectos de la declaración de su impuesto personal, debiendo hacer constar en la misma la relación individualizada de las personas y entidades colaboradoras, importe percibido o su valoración en caso de que sea en especie, e información respecto a las revocaciones producidas en el año natural.

Artículo 3. Formas de presentación del modelo 182 y acreditación de la identidad.

Uno. Las formas de presentación del modelo 182 son las siguientes:

a) Por medios electrónicos. Estarán obligados a esta forma de presentación los obligados tributarios referidos en el apartado 1 del artículo 1 de la Orden Foral 320/2017, de 28 de junio, por la que se regula la obligación de relacionarse con la Administración tributaria foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa por medios electrónicos.

La transmisión se realizará a través de:

a') Internet, desde la plataforma «Zergabidea», con arreglo a lo previsto en la Orden Foral 320/2017, de 28 de junio, por la que se regula la obligación de relacionarse con la Administración tributaria foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa por medios electrónicos. Dicha plataforma permitirá también confeccionar y guardar los borradores de las declaraciones a presentar.

b') Editran, de conformidad con lo previsto en la Orden Foral 1210/2002, de 5 de diciembre, por la que se establecen las condiciones generales y el procedimiento para la presentación telemática por Editran de determinados modelos tributarios.

b) Soporte papel, que se deberá ajustar al diseño que figura como anexo I de la presente orden foral. El citado soporte se compone de:

a') Hoja resumen, que comprende dos ejemplares: ejemplar para la Administración y ejemplar para el interesado o interesada.

b') Hoja interior de personas y entidades declaradas, que consta, asimismo, de dos ejemplares: ejemplar para la Administración y ejemplar para el interesado o interesada.

EK\CV GAO-I-2019-07816

Aipatu den paperezko euskarria bi modutan eskuratu ahal izango dute interesdunek: eredua PDF formatuan inprimatuz Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikotik (http://www.gipuzkoa.eus/eu) eta ogasun eta finantza departamentuaren webgune ofizialetik (http://www.gipuzkoa.eus/ogasuna), edo, bestela, «zergabidea» plataformatik zuzenean inprimatuz, betiere eredua bete eta gero.

Bi. Aurreko bat apartatuko a) letran jasotako aurkezpen moduen arabera bidali behar den fitxategi elektronikoak foru agindu honen II. eranskineko diseinu logikoak bete beharko ditu.

Fitxategi elektroniko hori prestatzeko, «Zergabidea» plataforma erabili ahal izango da, baina horrek ez du kentzen beste programa informatiko batzuk ere erabiltzea haiekin lortzen den fitxategiaren formatua foru agindu honen II. eranskinean jasotakoaren berdina bada.

Zergabidea plataforma https://zergabidea.gipuzkoa.eus atarian dago eskuragarri. ogasun eta finantza departamentuaren webgune ofizialaren bitartez ere iritsi daiteke bertara https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ogasuna helbidean sartuta.

Hiru. Aitorpenetan, pertsona edo entitate aitortuen erregistroak 25 edo gehiago badira, eredu informatiboa nahitaez aurkeztu beharko da bide elektronikoz, aurreko bat apartatuko a) letran ezarritakoari jarraituz.

Lau. Zerga arloko tramite jakin batzuk bide elektronikoz egitera behartuta ez dauden zergapekoek –ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduaren 1. artikuluan ezarritako obligazioa–, aitorpena internet bidez aurkeztea aukeratzen badute, foru agindu horretan xedatutakoaren arabera frogatu ahal izango dute beren identitatea.

Bost. 182 eredua banaka zein taldeka aurkez daiteke Internet bidez. Lehen kasuan, datuak biltzen dituen artxiboak aitortzaile baten datuak jasoko ditu, eta bigarrenean, aitortzaile batenak baino gehiagorenak.

Transmisio telematikoan sinadura elektroniko aitortua edo pasahitz operatiboa erabiltzeak aukera ematen du banakako nahiz taldekako aitorpenak aurkezteko.

Aldiz, kontraste datua banakako aitorpenetan bakarrik erabil daiteke transmisio telematikoan.

Sei. Internet bidez aurkeztutako aitorpenak aldatu, zuzendu edo baliogabetu nahi badira foru agindu honen 4. artikuluan aipatzen den epea amaitu aurretik, Internet bidez egin beharko da beti.

4. artikulua. 182 eredua aurkezteko epea.

182 eredua urte bakoitzeko urtarrilaren lehen hogeita hamar egun naturalen barruan aurkeztu behar da, dela paperean, dela transmisio elektronikoz, eta aurreko urteari dagokion informazioa jaso beharko du.

Epearen azken eguna egun baliogabea bada, hurrengo lehen egun baliodunera luzatuko da.

5. artikulua. 182 eredua paperean aurkezteko tokia.

Paperezko euskarria erabiliz gero, 182 eredua aurkeztu daiteke bai abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren bidez onartutako Zerga-bilketa Erregelamenduak bilketan laguntzeko baimentzen dituen entitateetako batean (banku, aurrezki kutxa edo kreditu kooperatibetan), eta bai Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko herritarren arretarako bulegoetan.

El referido soporte papel se podrá obtener, bien mediante la impresión del modelo en formato PDF que se pondrá a disposición de los interesados en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, a la cual se podrá acceder a través de la dirección https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/, y en la página web oficial del departamento de hacienda y finanzas, en la dirección http://www.gipuzkoa.eus/ogasuna, bien mediante la impresión efectuada desde la plataforma «zergabidea», una vez cumplimentado el modelo correspondiente.

Dos. El fichero electrónico a transmitir de acuerdo con las formas de presentación previstas en la letra a) del apartado uno, se deberá ajustar a los diseños lógicos previstos en el anexo II de la presente orden foral.

La elaboración del citado fichero electrónico se podrá realizar a través de la plataforma «Zergabidea» o utilizando otros programas informáticos capaces de obtener un fichero con el mismo formato que el que se recoge en el anexo II de la presente orden foral.

La plataforma «Zergabidea» está disponible en el portal https://zergabidea.gipuzkoa.eus. también se puede acceder a la misma a través de la página web oficial del departamento de hacienda y finanzas, https://www.gipuzkoa.eus/es/web/ogasuna.

Tres. En aquellas declaraciones que contengan 25 o más registros de personas o entidades declaradas será obligatoria la presentación del modelo informativo de forma electrónica, con arreglo a lo previsto en la letra a) del apartado uno.

Cuatro. Los obligados tributarios que, no estando afectados por la obligación de realizar determinados trámites de carácter tributario por vía electrónica prevista en el artículo 1 de la Orden Foral 320/2017, de 28 de junio, opten por presentar la declaración por Internet, podrán acreditar su identidad de conformidad con lo dispuesto en dicha orden foral.

Cinco. La presentación del modelo 182 por Internet podrá efectuarse de forma individual o de forma colectiva, según que el fichero correspondiente contenga los datos de un solo declarante, en el primer caso, o de varios en el segundo.

La utilización en la transmisión telemática de firma electrónica reconocida o de clave operativa posibilitará la presentación, tanto de declaraciones individuales como de declaraciones colectivas.

Por el contrario, la utilización del dato de contraste en la transmisión telemática únicamente será posible en la presentación de declaraciones individuales.

Seis. La modificación, rectificación o anulación de las declaraciones presentadas por Internet que se efectúe antes de la finalización del plazo a que se refiere el artículo 4 de esta orden foral, sólo se podrá efectuar por la misma vía.

Artículo 4. Plazo de presentación del modelo 182.

La presentación del modelo 182, tanto mediante transmisión electrónica como en soporte papel, deberá realizarse en los treinta primeros días naturales del mes de enero de cada año, en relación con la información referida al año inmediato anterior.

Cuando el último día del plazo sea inhábil, se entenderá prorrogado al primer día hábil siguiente.

Artículo 5. Lugar de presentación del modelo 182 en soporte papel.

El modelo 182 en soporte papel podrá presentarse en alguna de las entidades autorizadas para actuar como colaboradoras en la recaudación de los tributos (Bancos, Cajas de Ahorro o Cooperativas de Crédito), en los términos previstos en el Reglamento de Recaudación, aprobado por el Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto, y en las oficinas de atención ciudadana del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

EK\CV GAO-I-2019-07816

Xedapen Indargabetzailea.

Foru Agindu hau indarren jartzen denetik aurrera, indargabetuta geratzen dira foru agindu honen aurka doazen maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak eta, bereziki, abenduaren 17ko 667/2014 Foru Agindua, «Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. Dohaintzak, ekarpenak eta erabilpenak. Urteko laburpen informatiboa» izena duen 182 eredua onartu, eta aurkezteko erak eta epeak ezartzen dituena.

Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea eta aplikatzea.

Foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, eta 2020an 2019. urteari dagokionez aurkeztu behar diren aitorpenei aplikatuko zaie lehenengo aldiz.

Donostia, 2019ko abenduaren 11.—Jabier Larrañaga Garmendia, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua. (7816)

I. ERANSKINA

Disposición derogatoria.

A partir de la entrada en vigor de la presente Orden Foral quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo previsto en la presente orden foral y, en particular, la Orden Foral 667/2014, de 17 de diciembre, por la que se aprueba el modelo 182 «Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, Impuesto sobre Sociedades e Impuesto sobre la Renta de no Residentes. Donativos, aportaciones y disposiciones. Resumen informativo anual», y las formas y plazos de presentación.

Disposición final única. Entrada en vigor y aplicación.

La presente Orden Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, y será de aplicación, por primera vez, para la presentación de las declaraciones a realizar en 2020, correspondientes al año 2019.

San Sebastián, a 11 de diciembre de 2019.—El diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, Jabier Larrañaga Garmendia. (7816)

ANEXO I

EK\CV GAO-I-2019-07816

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua
Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Hacienda y Finanzas

www.gipuzkoa.eus/ogasuna
8400011032019

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga
Sozietateen gaineko zerga
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga
Impuesto sobre la renta de las personas físicas
Impuesto sobre sociedades
Impuesto sobre la renta de no residentes

Emaitzak, dohaintzak, doako zerbitzu prestazioak eta bestelako ekarpenak
Donativos, donaciones, prestaciones gratuitas de servicios y demás aportaciones

URTEKO LABURPENA / RESUMEN ANUAL

182

IDENTIFIKAZIOA / IDENTIFICACIÓN

EKITALDIA / EJERCICIO..... ☐☐☐☐

AITORPEN OSAGARRIA / DECLARACIÓN COMPLEMENTARIA.... ☐

ORDEZKO AITORPENA / DECLARACIÓN SUSTITUTIVA..... ☐

IFZ / NIF	Abizenak eta izena edo sozietatearen izena / Apellidos y nombre o razón social

HARREMANETARAKO PERTSONA /PERSONA CON QUIEN RELACIONARSE

Abizenak eta izena/ Apellidos y nombre	Telefonoa/ Teléfono

ORDEZKARIA / REPRESENTANTE

NA / DNI	Abizenak eta izena / Apellidos y nombre

AITORTZAILEAREN IZAERA / NATURALEZA DE DECLARANTE

☐ Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga araubidean eta eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarrietan araututako entitateak / Entidades reguladas en el régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo.

☐ Kultur mezenasgoaren hartzaile diren pertsonak eta entitateak / Personas y entidades destinatarias del mecenazgo cultural

☐ Ondare babestuaren titularra edo administratzailea / Titular o administrador/a de un patrimonio protegido

☐ Langileen sindikatua / Sindicato de trabajadores y trabajadoras

☐ Alderdi politikoa / Partido político

Ondare babestuaren titularraren identifikazio datuak / Datos identificativos de la persona titular del patrimonio protegido
Aitortzailea ondare babestu baten administratzailea denean bakarrik beteko dira datu hauek / Se cumplimentarán estos datos en el caso de que el o la declarante sea el administrador o administradora de un patrimonio protegido

IFZ / NIF	Abizenak eta izena / Apellidos y nombre

AITORPENAREN LABURPENA / RESUMEN DE LA DECLARACIÓN

Aitortuen erregistro kopuru osoa / Número total de registros de declarados/as	**01**	
Emaitzen, dohaintzen, doako zerbitzu prestazioen, legatuen, erabilera maileguen, lankidetza hitzarmenetatik ondorioztatutako gastu kengarrien, ekarpenen edo xedatzeen zenbateko osoa eta/edo balorazioa / Importe total y/o valoración de los donativos, donaciones, prestaciones gratuitas de servicios, legados, préstamos de uso, gastos realizados con derecho a deducción en virtud de un convenio de colaboración, aportaciones o disposiciones.....	**02**	

DATA / FECHA .....

Aitortzailea edo bere ordezkaria
El o la declarante o su representante

Sin./ Fdo.:.....

Kargua edo enplegua / Cargo o empleo:.....

Administrazioaren alea / Ejemplar para la Administración

EK\CV GAO-I-2019-07816

Zergadunaren arreta zerbitzua:
* Telefonoz : 902 100 040
* Internet: www.gipuzkoa.eus/ogasuna

182 EREDUA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

Dokumentu hau makinaz edo boligrafoz bete behar da, gainazal gogor baten gainean idatziz eta hizki larriak erabiliz.
Laburpen orriak eta aitortuen zerrenda orriek osatzen dute 182 eredua. Aitortzaileek 182 eredu bana aurkeztuko dute ekitaldiko, aitorpen osagarriak direnean izan ezik.

182 EREDUA AURKEZTERA BEHARTUAK

182 eredua aurkeztera behartuta daude mezenasgoaren onduradun diren entitateak, emaitzak, dohaintzak, ekarpenak edo doako zerbitzu prestazioak jasotzen dituztenean, eta, orobat, kultur mezenasgoaren onuradun diren pertsonak eta entitateak, dohaintzak eta legatuak, erabilera maileguak, edo enpresa lankidetzako hitzarmenetatik ondorioztatutako laguntzak jasotzen dituztenean, betiere kenkarirako eskubidea ematen badute pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, sozietateen gaineko zergan edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan.
Kasu bietan, aitorpen informatiboa aurkeztu beharko da dohaintzan emandakoa, legatutakoa, lagatakoa, maileguan edo ekarpenean utzitakoa, edo gauzatutakoa zerga pertsonalean aitortzeko ziurtagiria eskatu denean.
Era berean, ondare babestuen titularrak edo administratzaileak, langileen sindikatuak eta alderdi politikoak daude 182 eredua aurkeztera behartuta.

LABURPEN ORRIA

IDENTIFIKAZIOA
Ekitaldia: aitortzen den ekitaldiaren lau zifrak jarriko dira.

Aitorpen osagarria: jarri "X" bat baldin eta aitorpena aurkezteko arrazoia ekitaldi bereko aurreko beste aitorpen batean aipatu ez ziren aitortuen erregistroak sartzea bada. Lehendik aipatu ez diren erregistroak sartuko dira soil-soilik.
Ordezko aitorpena: jarri X bat aurkezten den aitorpenak aurreko bat baliogabetu eta ordezkatzen duenean.
AITORTZAILEAREN IZAERA
Nolako aitortzailea den, "X" bat jarriko da behar den laukian:
1. Apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauan, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga-pizgarriei buruzkoan, araututako entitateak.
2. Kultur mezenasgoaren hartzaile diren pertsonak eta entitateak, kultur mezenasgoaren aldeko zerga-pizgarriei buruzko otsailaren 11ko 2/2019 Foru Arauan arautuak.
3. Desgaituen ondare babestuaren titularra edo haren administratzailea, ondare hori desgaituen ondarea babesteari buruzko azaroaren 18ko 41/2003 Legean araututa dagoenean. Aitorpena administratzaileak aurkezten badu, ondare babestuaren titularraren IFZ eta izen-abizenak beteko dira.
4. Langileen sindikatua.
5. Alderdi politikoa.
AITORPENAREN LABURPENA
01 Aitortuen erregistro kopuru osoa: aitortuen zerrendan aipatutakoak batuko dira. Aitortu bera behin baino gehiagotan agertzen bada, agertzen den adina aldiz zenbatuko da.

02 Emaitzen, dohaintzen, doako zerbitzu prestazioen, legatuen, erabilera maileguen, lankidetza hitzarmenetatik ondorioztatutako gastu kengarrien, ekarpenen edo xedatzeen zenbateko osoa eta/edo balorazioa: aitortuen zerrendan "Zenbatekoa edo balorazioa" laukietan adierazi diren zenbatekoen batura jarriko da.

DATA ETA SINADURA
Biak jarriko dira, baita sinatzailearen izen-abizenak eta kargu edo enplegua ere. Aitortzailea edo ordezkaria izango da sinatzailea.

Inprimaki honetan jartzen dituzun datuak zerga-helburuetarako fitxategi informatikoetan gordeko ditugu. Datu horiekiko sarrera, zuzenketa, deusezatze eta oposizio eskubideak erabil ditzakezu, 15/1999 Lege Organikoaren baldintzetan, Foru Ogasunaren aurrean: Errotaburu pasealekua 2, Donostia.

Servicio de atención al contribuyente:
* Telefónica : 902 100 040
* Internet: www.gipuzkoa.eus/ogasuna

INSTRUCCIONES PARA CUMPLIMENTAR EL MODELO 182

Este documento deberá cumplimentarse a máquina o utilizando bolígrafo sobre superficie dura y con letras mayúsculas.
El modelo 182 se compone de hoja resumen y de hojas de relación de declarados/as. Cada declarante deberá presentar un modelo 182 por ejercicio, salvo que se trate de declaraciones complementarias.

OBLIGADOS/AS A PRESENTAR EL MODELO 182

Están obligadas a presentar el modelo 182 las entidades beneficiarias del mecenazgo preceptoras de donativos, donaciones, aportaciones y prestaciones gratuitas de servicios, así como aquellas personas y entidades destinatarias del mecenazgo cultural perceptoras de donaciones y legados, préstamos de uso y ayudas recibidas en virtud de convenios de colaboración empresarial, que den derecho a deducción por el impuesto sobre la renta de las personas físicas, el impuesto sobre sociedades o por el impuesto sobre la renta de no residentes.
En ambos casos, la declaración informativa se deberá presentar cuando se haya solicitado certificación acreditativa de lo donado, legado, cedido, prestado, aportado o realizado a efectos de la declaración de su impuesto personal.
Asimismo están obligados u obligadas a la presentación del modelo 182 los administradores o las administradoras o titulares de patrimonios protegidos, los sindicatos de trabajadores y trabajadoras y los partidos políticos.

HOJA RESUMEN

IDENTIFICACIÓN
Ejercicio: se consignarán las cuatro cifras del ejercicio al que corresponda la declaración.
Declaración complementaria: se marcará con una X si la declaración tiene por objeto incluir registros de declarados o declaradas omitidos en otra declaración del mismo ejercicio ya presentada. Sólo se incluirán los registros omitidos con anterioridad.
Declaración sustitutiva: se marcará con una X si la declaración anula y sustituye a una anterior.
NATURALEZA DE DECLARANTE
Se marcará con una X la casilla que corresponda, si se trata de:
1. Entidades reguladas en la Norma Foral 3/2004, de 7 de abril, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo.
2. Personas y entidades destinatarias del mecenazgo cultural, reguladas en la Norma Foral 2/2019, 11 de febrero, de incentivos fiscales al mecenazgo cultural.
3. Administrador o administradora o titular de un patrimonio protegido de personas con discapacidad, regulado en la Ley 41/2003, de 18 de noviembre, de protección patrimonial de personas con discapacidad. Se rellenará el NIF, los apellidos y el nombre de la persona titular del patrimonio protegido en el caso de presentación por parte del administrador o administradora.
4. Sindicato de trabajadores y trabajadoras.
5. Partido político.
RESUMEN DE LA DECLARACIÓN
01 Número total de registros de declarados/as: suma de los incluidos en la relación de declarados/as. Si un mismo declarado o declarada figurase más de una vez, se computarán tantos declarados y declaradas como veces aparezca relacionado o relacionada.
02 Importe total y/o valoración de los donativos, donaciones, prestaciones gratuitas de servicios, legados, préstamos de uso, gastos realizados con derecho a deducción en virtud de un convenio de colaboración, aportaciones o disposiciones: suma de las cantidades reflejadas en las casillas "Importe o valoración" de la relación de declarados/as.
FECHA Y FIRMA
Se consignarán ambas y además el nombre, apellidos y cargo o empleo del firmante, que será el o la declarante o su representante.

Los datos de este impreso se incorporarán a los ficheros informáticos de la Hacienda Foral para fines tributarios. Podrá ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, en los términos de la Ley Orgánica 15/1999, ante la misma: Pº Errotaburu nº 2, Donostia-San Sebastián.

EK\CV GAO-I-2019-07816

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua
Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Hacienda y Finanzas

www.gipuzkoa.eus/ogasuna
8400011032019

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga
Sozietateen gaineko zerga
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga

Impuesto sobre la renta de las personas físicas
Impuesto sobre sociedades
Impuesto sobre la renta de no residentes

Aitortuen zerrenda
Relación de declarados/as

182

Aitortzailearen IFZ NIF declarante	

Ekitaldia Ejercicio	

Orria Hoja	/

0	Aitortuaren IFZ NIF declarado/a		Ordezkariaren IFZ NIF representante		Abizenak eta izena edo sozietatearen izena Apellidos y nombre o razón social			
	Izaera Naturaleza	Prob. Prov.	Gakoa Clave	Kenkariaren% %deducción	Zenbatekoa edo balorazioa Importe o valoración	Gauzatan En especie	Errebokazioa Revocación	Errebokazioaren ekitaldia Ejercicio de revocación
	C eta D gakoak bakarrik: Sólo para claves C y D:			Ondasun mota Tipo de bien	Ondasunaren identifikazioa Identificación del bien			Errepikapena Recurrencia
1								
2								
3								
4								
5								
6								

Administrazioaren alea / Ejemplar para la Administración

EK\CV GAO-I-2019-07816

Zergadunaren arreta zerbitzua:
* Telefonoz : 902 100 040
* Internet: www.gipuzkoa.eus/ogasuna

AITORTUEN ZERRENDA

Aitortzailearen IFZ: jarri aitorpena aurkeztera behartuta dagoenaren IFZ.

Ekitaldia: aitortzen den ekitaldiaren lau zifrak jarriko dira.

Orria: jarri aitortuen zerrenda orriaren ordena zenbakia eta aitorpenak dituen zerrenda orrien kopuru osoa (adibidez: 1/10, 2/10,...,10/10).

Ordezkariaren IFZ: Jasotzaileak 14 urte baino gutxiago baditu, legezko ordezkariaren IFZ jarriko da eremu honetan (aita, ama edo tutorearena). Jasotzailearen IFZ beharrezkoa da kasu honetan ere.

Izaera: aitortutako pertsona edo entitatearen izaera adierazi behar da, honako balore hauen arabera:

F: Pertsona fisikoa.
J: Pertsona juridikoa.
E: Errentak esleitzen dituen entitatea.

Gakoa: jarri gakoa balore hauen arabera:

A: Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga-pizgarriei buruzko araudian ezarritako mezenasgoko lehentasunezko jarduera edo programetan sartzen ez diren emaitzak, dohaintzak, ekarpenak eta doako prestazioak.
C: Desgaituen ondare babestuari egindako ekarpena.
D: Desgaituaren ondare babestuaren xedatzea.

E: Aitorpen informatiboan aipatzen den urte naturalean edo aurreko lau urteetan onuradunaren bizi beharrei aurre egiteko asmoz ondare babestura ekarritako diru gastua eta ondasun suntsikorren kontsumoa, ondasun edo eskubideen xedapentzat hartu behar ez direnak.
K: Dohaintzak eta legatuak, erabilera maileguak, eta lankidetza hitzarmenen ondorioz egindako gastu kengarriak, kultur mezenasgora bideratuak.

R: Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga-pizgarriei buruzko araudian ezarritako lehentasunezko mezenasgo jarduera edo programetara bideratutako kopuruak.
S: Kuota sindikala
